



## TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

## ACTA FORO AGENDA LOCAL 21

**Bilera-mota:** ohikoa.

**Eguna:** 2006-04-25

**Ordua:** 17:30 – 18:15

**Tokia:** Legazpiko Udaleko Udalbatza Aretoa

**Tipo de Convocatoria:** ordinaria

**Día:** 25-04-2006

**Hora:** 17:30 – 18:15

**Lugar:** Salón Plenos Ayuntamiento Legazpi

### **Bertaratuak (65 pertsona) / Asistentes (65 personas):**

Juan Ramon Larrañaga (Alkatea), Bixente Garmendia (Ingurumeneko zinegotzia/ concejal Medio Ambiente), Gerardo Antón (zinegotzia/ concejal), Iñaki Mendia (zinegotzia/ concejal), Jose Luis Cid (zinegotzia/ concejal), José Ignacio Gil (Ur Kontsortzioa), Mila Noguera (legazpiarra), Montse Vallejo (APA Olazabal), Jose Dorronsoro (APA Haztegi), Fernando Martínez de Albeniz (legazpiarra), Fco. Javier Iraeta (GKN Driveline Legazpi, S.A.), Josune Macaya (UGGASA), Margi Iturriza (GALEMYS), Tere Madinabeitia (Diario Vasco), Asier Zaldua (Noticias de Gipuzkoa), Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria).

DOMINGO AGIRRE ikastetxea: ikasle, guraso eta irakasleak / alumnado, padres y madres y profesorado.

HAZTEGI IKASTOLA: ikasle, guraso eta irakasleak / alumnado, padres y madres y profesorado.

OLAZÁBAL INSTITUTOA: ikasle, guraso eta irakasleak / alumnado, padres y madres y profesorado.

### **Aztergaiak:**

1. Eskolako Agenda 21: Ikastetxeetako ikasleen ordezkariak Legazpiko ENERGIARI buruz egindako hausnarketa, proposamenak eta konpromisoak aurkeztu dituzte.
2. Eskariak eta galderak.

### **Esan-eginak eta erabakiak:**

**1.- Eskolako Agenda 21: Ikastetxeetako ikasleen ordezkariak Legazpiko ENERGIARI buruz egindako hausnarketa, proposamenak eta konpromisuak aurkeztu dituzte.**

Hiru ikastetxetako ikasleek egindako lana azaldu dute eta Udalari zenbait proposamen egin diote (akta honi erantsita dagoen agirian agertzen dira). Horretarako inkestak egin dituzte gaur egungo ohiturak aztertze, munduan, Euskadin eta etxeetan erabiltzen den energia aztertu dute, kontsumoan ematen ari diren aldaketak aztertu dituzte eta, bukatzeko, Legazpiko dendetan, enpresetan eta udal egoitzetan energiaren diagnostiko bat egin dute.

### **Orden del Día:**

1. Agenda 21 Escolar: Representantes del alumnado de los centros escolares presentan las propuestas, compromisos y reflexiones realizadas en torno al tema de la ENERGIA en Legazpi.
2. Ruegos y preguntas.

### **Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1.- Agenda 21 Escolar: Representantes del alumnado de los centros escolares presentan las propuestas, compromisos y reflexiones realizadas en torno al tema de la ENERGIA en Legazpi.**

Representantes del alumnado de los tres centros escolares explican el trabajo realizado y presentan diferentes propuestas al ayuntamiento (se adjuntan a este acta). Para ello han realizado diversas encuestas y analizado la energía que se utiliza en el mundo, en Euskadi y en nuestras casas; han estudiado los cambios en los hábitos de consumo y, para terminar, han realizado un diagnóstico del uso de la energía en comercios, empresas y edificios municipales.

## TOKIKO AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

## ACTA FORO AGENDA LOCAL 21

Ondoren, azalpenean aipatutako zenbait gai aztertu ditu alkateak:

- Arau Subsidiarioetan eguzki plakak jartzea eta eraikinen orientazioa aztertzen ari da.
- Ikastetxeetako eguzki plakak: funtzionamenduan dauden ala ez argituko du.
- Udaletxeko sarrerako haize-gortina ea eraginkorra den ala ez aztertuko du.
- Beste zenbait herrialdetara laguntzeko Udalak 2007. urtean %0,7a aurreikusteko konpromisoa dauka.
- Ikasleak animatu egin ditu herrialde horietara arropa, eskolako materiala, etab. bidaltzen jarraitzeko.
- Udal eraikinak hobetzeak diru asko eskatzen du. Santa Cruz Egoitza egokitzeko asmoa dago.
- Gaur egun, autoa da airea gehien kutsatzen duena.
- Gabonetako argiak: ea ez diren jarri behar aztertzeko prest dago.
- Udalak kaleko argiak aztertu ditu eraginkortasuna indartzeko eta argi-kutsadura gutxitzeko asmoz.

Bukatzeko, alkateak egindako proposamenak eskertu egin dizkie ikasleei eta zorionak eman dizkie egin duten lan sakonagatik. Aztertuko duela esan du alkateak eta laster erantzuna emango diela.

### 2.- Eskariak eta galderak.

Ez da izan ez eskaerarik, ez galderarik.

A continuación el Alcalde ha analizado algunos aspectos de la exposición.

- En las normas subsidiarias se está analizando la colocación de placas solares y la orientación de los edificios.
- Aclarará si las placas solares de los colegios están o no en funcionamiento.
- Analizará si la cortina de aire de la entrada del ayuntamiento es o no eficiente.
- El ayuntamiento ha adquirido el compromiso de dedicar el 0,7% del presupuesto del 2007 para ayudar a otros países.
- Anima a los escolares a que sigan enviando a esos países, ropa, material escolar,...etc.
- Mejorar los edificios municipales cuesta mucho dinero. Hay intención de adecuar la residencia Santa Cruz.
- Actualmente es el coche el que más contamina el aire.
- Luces navideñas: está dispuesto a estudiar si se deben poner o no.
- El ayuntamiento ha analizado la iluminación de las calles con la intención de impulsar la eficiencia energética y disminuir la contaminación lumínica.

Para terminar, el alcalde agradece a los estudiantes las propuestas realizadas y les felicita por el trabajo realizado. Les comenta que estudiará las propuestas y que pronto les responderá.

### 2.-Ruegos y preguntas.

No ha habido ni ruegos ni preguntas.